

HIRUBIDE INSTITUTUKO JANGELA ARAUDIA

1. SARRERA

Hirubide institutuak eskaintzen dituen jardueren artean bat jangela da eta Institutuko beste edozein jarduerari ematen zaion trataera izango du; horregatik, Hirubide Institutuko *Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, Antolakuntza Jardueren Araudian eta Ikastetxeko Urteko Planean* jasota dauden helburu eta arau orokorren ondorio zuzena da jangelako araudi hau.

Jangelan bazkaltzen gelditzea ez da derrigorra. Jangelan geratzen den edonork OOGk onartutako araudi hau ezagutu eta bete beharko du ezinbestean. Arauak ez betetzeak ondorioak izango ditu.

Bazkalkide, begirale, sukaldeko langile eta jangelako arduradunaren artean errespetua izango da oinarri, ezinbestean. Horrelako zerbitzu batek martxa egokia izan dezan nahitaezko da denok zintzotasunez eta begirunez jokatzea.

2. OINARRIZKO ARAU OROKORRAK

1. Jangelan geratzen diren ikasle guztiak egunean prestatutako bazkaria jatera derrigortuta daude, ezin dute nahi dutena edo gustukoa dutena bakarrik jan.
2. Bazkaltiar guztiak menu berbera jango dute. Menu bereziak onartuko dira, betiere medikuaren ziurtagiria aurkezten bada, edo erlijio zein bestelako arrazoiak direla eta gurasoek eskatzen badute.
3. Jangelatik ezin da janaririk atera.
4. Jangelako hutsegiteak justifikatu egin behar dira, bai osasun eta bai erlijio kasuetan. Horretarako ikastetxeko eredia erabili beharko da. Hutsegite hauek bi eguneko aurrerapenarekin justifikatu beharko dira, ikaslea gaixotzen den kasuetan izan ezik.
5. Jangelako txukuntasuna denon ardura eta eginkizuna denez, lan hori derrigorrez eta erantzukizunez bete behar da.

6. Ez da jantokiko kuotarik itzuliko zerbitzua erabili ez deneko egunengatik, Institutuak antolatutako hainbat egunetako irteeren kasuan izan ezik. Kasuan kasuko egoerak aztertuko dira eta OOGk beste erabakirik har dezake. Hezkuntza Sailaren diru laguntza (beka) jasotzen duten ikasle bazkaltiarrei ezin zaie inola ere ezer itzuli.
7. Janaria zerbitzatzeko hamar minutuko denbora tartea errespetatuko da, handik aurrera ez da bazkaririk zerbitzatu. Hamabost minutuz bazkaltiar guztiek mahaian eserita egon beharko dute eta ezin izango dute ordurarte jangelatik irten. Jangelatik irteteko janari guztia jan beharra dago eta monitore zein arduradunaren baimena beharko da.

3. JANGELAKO ARDURADUNEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

1. Zerbitzu egokia eskaintzea (kalitatea, kantitatea, menuen egokitasuna...) dituzten bitartekoekin.
2. Eguneroko gertakariak idatzita jasotzea.
3. Ikasle, sukaldeko langile eta begiraleen keak eta iradokizunak aztertu eta bideratzea.
4. Ikasleen hutsegiteak kontrolatzea.
5. Jangelako araudia ikastetxean parte hartzen duten alderdi guztiei ezagutarazi eta betearaztea.
6. Jangelako kudeaketa ekonomikoa bideratzea.
7. Jangelako horniketa bideratzea.
8. Zuzendaritza, jangelako langile eta Auzolaguneko arduradunarekin egunerokotasuna aztertzekeo bilerak antolatu eta bideratzea.
9. Ikasleek bazkaltzen duten bitartean bertan egotea.
10. Jangelako Arautegiaren aplikazioa irakasle arduradunaren betebeharra da. Horretarako jangelako beste langile guztiekin koordinatuko da.

4. SUKALDEKO LANGILEEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

1. Zerbitzu egokia eskaintzea.
2. Dagokien lan hitzarmenak araututako eginkizunak betetzea.
3. Ikastetxeko jangela arduradun eta zuzendaritzarekin adostutako hainbat eginkizun betetzea.

5. BEGIRALEEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

Auzolagun enpresak eta jangelako arduradunak adostutako eginkizunak betetzea. Horien artean hauek:

1. Jangelako araudia ikasleei betearaztea. Arazoak sortzen direnean irakasle arduradunak daude arautegia aplikatzeko eta interpretatzeko. Hauekin koordinatu behar dira arazoei aurre egiteko.
2. Ikasleen janari banaketaz arduratzea.
3. Janari eta tresneriaren erabilera egokia bideratzea.
4. Bazkaldu ondoren ikasleen jasotze lanak bideratzea.
5. Ikastetxe barruan geratu behar duten ikasleen zaintza bermatzea.
6. Ikasleen arteko elkarbizitza eta segurtasuna zaintzea.
7. Jangelako arduradunei suertatzen diren gorabehera guztien berri ematea.

6. IKASLEEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

1. Jangelako araudia ezagutu, onartu eta betetzea.
2. Klaseak amaitu ondoren zuzenean jangelara joatea, arduradun eta begiraleek emandako aginduen arabera.
3. Ikasle bakoitzak bere leku finkoa izango du jangelan eta bertan eseriko da.
4. Egunerako prestatutako menua jan behar da eta plater guztiak probatzea derrigorrezkoa da.
5. Erabiltzaile guztiek aldeztatik ezagututako menua bazkalduko dute. Ikasleren batek dieta berezia beharko balu medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, edo erlijio arrazoien kasuan gurasoek sinatutako eskaera.
6. Janaria banatzerako orduan ilarak errespetatuko dira.
7. Txukuntasunez bazkalduko da, tresna eta instalazio guztiak zainduz.
8. Janaria eta tresneriarekin ez da jolastuko.
9. Giro lasaian bazkalduko da, zarata eta iskanbilarik sortu gabe.

10. Bukatutakoan, norberak bere bandeja hustu eta pilatuko du, egoki birziklatu, edalontzia jaso eta mahai-tresnak dagozkien lekuan jarriko dira
11. Jangelatik ezin da janaririk atera.
12. Zerbait gertatzen denean, begirale edo arduradunari jakinaraztea.
13. Jangela orduan telefonoaren erabilera debekatua dago, bai jangelan bai Institutuko edozein eraikin barruan.
14. Autobusez bueltatzen diren ikasleek ezin izango dute Institututik irten autobusa etorri artean, irteteko arduradun eta begiraleek esandako atea erabili beharko dutelarik.

7. GURASO EDO TUTORE LEGALEN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

1. Jangelako araudia ezagutu, onartu eta betetzea.
2. Jangelari dagozkion 9 kuotak ezarritako epean ordaintzea: lehenengo kuota urrian eta ekainean azkena. Kuotak hilaren lehenengo hamabostaldian kobratuko dira banku-helbideratzearen bitartez.
3. Ikasleren batek jangelan baja eskatzen badu, hilabetea bukatu baino lehen adierazi beharko du hurrengo kuota kobratu ez dakion eta jangela zerbitzuko beste gastuak behar bezala kitatzeko.
4. Jangelako hutsegiteak idatzirik justifikatu behar dira.
5. Ikasle batek Ikastetxeko eremutik atera behar izanez gero, baimena idatzirik eta sinatua helarazi beharko dute. Egoera honetan, ikaslearen ardura hartuko dute.

8. DIZIPLINA ARAUBIDEA

1. Jangelako araudia haustea ondorioak izango ditu eta gertatutakoari egokitutako neurriak hartuko dira, beti ere, ikaslearen hezkuntza-prozesua hobetzeko asmotan.
2. Neurrien artean hauek aurreikusten dira:
 - Eginkizun edo betebeharrak bat hausterakoan ahoz ohartaraztea.
 - Guraso edo/eta tutoreei jakinaraztea.
 - Ikaslea mahaiz aldatzea edo denboraldi baterako bakarrik jartzea.
 - Neurri zuzentzaileak ezartzea.

- Bigarren ohartarazpen bat balego, egun batez jangela zerbitzua galduko du ikasleak. Hirugarren ohartarazpenarekin aste beteko jangela zerbitzua galduko du, eta laugarrenarekin Elkarbizitza batzordeak erabakiko du zer egin.
- Diziiplina hutsegiterik balego, honako trataera izango dute: arinen kasuan egun beteko jangela zerbitzua eta larrien kasuan astebeteko zerbitzua galduko du ikasleak.
- Justifikatu gabeko hutsegiteen kasuan horrela jokatuko da: justifikatu gabeko hiru hutsegitek egun bateko jangela zerbitzua galtzea ekarriko dute, laugarrenak aste betekoa eta bosgarrenak ikaslea jangelatik kanporatzeko ondorioa izango du.
- Ikasleren bat jangelatik kanporatzea erabakiz gero, honako hau hartuko da kontuan:
 - Behin-behineko kanporatzea, gehienez, astebetekoa bada ez da diru-kenketarik egingo.
 - Behin-behineko kanporatzea astebete baino luzeagoa edo behin betikoa bada bigarren astetik aurrera ez da janaririk kobratuko; bai ordea, jangelako beste gastuak.

Irunen, 2019ko maiatzaren 29an